



JANTOKI ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jantoki zerbitzuari buruz indarrean dagoen araudia

- [58/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak derrigorrezko](#)
- [Eskola-jantokiko jarraibideak 2024/2025](#)

Eskola-jantokiko zerbitzuaren erabiltzaileak

(246/1991 Foru Dekretua, 3. artikulua) Eskualdeko jantokiak dira Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak hala izendatzen dituenak, ikastetxeetan sortzen diren beharrei erantzuteko, hain zuzen ere, eskolara joateko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak antolatutako garraioa erabili behar duten ikasleak daudenean eta garraio zerbitzu hori eguerdiko joan-etorririk gabea denean. Foru Komunitateko Administrazioak sortu eta antolatuko ditu, eskola kontseiluekin eta ikastetxeetako zuzendaritzekin lankidetzan.

Jantokiaren kudeaketa

(246/1991 Foru Dekretua, 5. artikulua) Zerbitzua kontratatzen duten eskualdeko jantokietan, Hezkuntza Departamentuak hautatuko du kontratista, Eskola Kontseiluak emandako oharrak kontuan hartuta.

2024/2025etik, Zerbitzu Osagarrien Atalak Aramark kontratatu du. Enpresa arduratzen da elikagaiak erostez, langileak kontratatzeaz, menuak diseinatzeaz eta ikastetxean bertan janaria prestatzeaz.

Antolaketa

Ikasturte honetan, ikastetxean txanda bakarra izanen dugu, hainbat espaziotan banatua.

- 1. Espazioa: 4 urte eta LH 4.maila . Mirian Iturralde
- 2. Espazioa: LH 1.maila, LH 5.maila eta A eredua. Ana Esain
- 3. Espazioa: 5 urte eta LH2.maila: Elena Arretxea
3 urte, LH 3.maila eta LH 6.maila: Maite Ursuegui

Aldizka bilerak egingen dira enpresaren, ikastetxearen, enpresako langileen artean, jantokiaren martxa eta funtzionamendua aztertzeko: menuen egokitasuna, plateren bat aldatzea, funtzionamendu arauak eta abar.



Harremanetarako

IRAILETIK EKAINERA, astelehenetik ortziralera, ikastetxea arduratuko da jantokiaren kudeaketaz.

Ikastetxeak izendatutako eskola-jantokiko arduraduna honako hau da: Idoia Goñi

Jantokiarekin lotutako edozein aferetarako (faltak, noizbehinka joatea, kobrantzak, zalantzak, menu aldaketak), deitu eskolako telefonora: **948 58 18 08**

Faltak edo noizbehinka joateko asmoa: abisatu egin beharko da **egun bereko goizeko 10:00ak baino lehen**, beranduenez, eskolako telefonora deituz.

Kuotak

Erreziboa, hilabeteen jangela zerbitzua izan den egunen arabera kalkulatu da eta hilabetearen 6a inguruan pasatzen da bankutik.

IKASLE EZ GARRAIATUA	IKASLE GARRAIATUA EDO EKONOMIA AHULEKOA
OHIKO ERABILTZAILEA	
7 €	2 €
4 EGUN ASTEAN	
8 €	
OHIKO ERABILTZAILEA URRITIK-MAIATZERA	
8 €	
ALDIAN BEHINEKOA	
15 €	

Ikasle garraiatuak: soilik astebetetik gorako absentziak deskontatuko dira, baldin eta aurretik abisatu bada.

Ikasle ez-garraiatuak: aurrez abisatzen bada, menuaren zatia deskontatuko da; bestela, menua oso-osorik kobratuko da.

Kuotak ordaintzen ez badira, ikasleak **jantokiko plaza galduko du**. Erabakia Eskola Kontseiluak hartuko du.



Jantokirako banakako laguntzak

(35/2022 Foru Agindua, 27. artikulua) Ikastetxeak hala eskatuta, jantokiko banakako laguntzak ematen ahalko zaizkie Haur Hezkuntzako bigarren zikloa edo Lehen Hezkuntza egiten ari diren ikasleei, baldin eta ekonomia egoera ahulean badaude.

Banakako laguntza horien zenbatekoa kalkulatu da jantoki arruntetan diruz lagundutako jankideentzat dirulaguntza kalkulatzeko den bezala.

Familia interesdunak [jar daitezela harremanetan ikastetxearekin](#).

Funtzionamendua

Enpresak beraien web orrialdearen bidez bidaliko die menua jankide guztiei. Horrez gain, ikastetxearen webgunean ere jarriko da.

Enpresako dietistek egiten dituzte menuak. Ahalegina egiten da menua askotarikoa izan dadin (lekaleak, pasta, barazkiak, haragia, arraina, fruta eta esnekiak). Barazkiak osorik ematen dira, birrindu gabe.

Ez da janaririk gordeko egun batetik bestera. Eguneko menua jankide guztiei emanen zaie, eta zainduko da plater bakoitzean zer zerbitzatzen den, kantitatea behar bestekoa eta egokia izan dadin jankidearen adinerako.

Ikasle guztiek menu bera dute, honako hauek izan ezik:

- Medikuek hala aginduta, menua aldatzeko beharra justifikatzen dutenek, betiere medikuaren txostenarekin.
- Haragia ez jatea eskatzen dutenek.
- Erlijio arrazoiengatik haragi mota jakin bat jaten ez dutenek.

Ikasleek **gutxieneko kantitate bat** jan beharko dute beti. Lehenengo platera errepikatzeko aukera dago.

Hondakinak **sailkatuta** jasoko dira.

Jantokiko begiraleen eginkizunak

(246/1991 Foru Dekretua, 15. artikulua) Jantokiko begiraleek zainduko dute jankideen jokabidea egokia dela, eta zerbitzuak eginen dituzte ikasleek bazkaldu bitartean eta bazkaldu aurreko eta ondoko aisialdian.



Ikastetxeko Bizikidetza Erregelamenduan ikasleentzat ezarritako arauak

Ikastetxeko **Bizikidetza Erregelamendua** indarrean da jantokian ere. Arauen artean:

- Jankideak eta begiraleak errespetatzea.
- Puntualtasuna.
- Eskuak garbitzea jan aurretik.
- Aulkian behar bezala esertzea.
- Mahai-tresnak, ahozapiak... behar bezala erabiltzea.
- Denetarik probatzea.
- Oihurik ez egitea.
- Eskua altxatzea zerbait behar bada.
- Mahaitik altxatzeko baimena eskatzea.
- Janaria, ogia, ahozapiak... lurrera ez botatzea.
- Oinez ibiltzea, ez korrika.

Oroitzea ikastetxeko elkarbizitza arauak indarrean daudela hezkuntzako une orotan, jantokiko denboran barne.

Bizikidetza arazoak dituzten ikasleekin erregistro bat eginen da, familiak eskolarekin elkarlanean jardun dezan.

Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleen kasuan, janariari buruzko idatzizko erregistro bat eginen da astero irailatik abendura (biak barne).

Jantokiko erabiltzaile guztiei hiruhilabetea behin janariari buruzko idatzizko erregistro bat bidaliko zaie.

Siesta

Haur Hezkuntzako 3 urteko ikasleek bazkaldu ondoren siesta eginen dute.

Ikasleak zaintzaile batekin egonen dira ikasgelan. Zerbitzua hasi aurretik, ikasle bakoitzak tapaki bat ekarri beharko ditu.

Hortzak garbitzea

Bazkaldu ondoren, ikasleak Nafarroako Gobernuak ekarritako hortz eskuila eta pastarekin hortzak garbituko dituzte beraien zaintzailea lagunduta. Ikasle bakoitzak bere etxetik edalontzi bat ekarri beharko du.